Bestelako Xedapenak

KULTURA SAILA

1243

EBAZPENA, 2010eko urtarrilaren 27koa, Kultura Saileko Zerbitzu zuzendariarena, Eusko Legebiltzarrean ordezkatuta dauden alderdi politikoekiko mendekotasun organikoa duten fundazio zein elkarteentzako 2009ko diru-laguntzetara biltzeko dei egin zuen Kulturako sailburuaren 2009ko abuztuaren 7ko Aginduaren babesean onuradun gertatutako entitateak, diru-laguntza jaso duten programak eta baita horietako bakoitzari esleitutako diru-laguntzaren zenbatekoa ere publiko egiten dituena.

Irailaren 30eko 164/2008 Dekretuak Eusko Legebiltzarrean ordezkatuta dauden alderdi politikoekiko mendekotasun organikoa duten fundazio zein elkarteentzako diru-laguntzak emateko modua arautzen du eta 11.3 artikuluak dioenari jarraituz, urtean urteko laguntza-deialdiaren gainean Kultura sailburuak hartutako Ebazpena entitate interesdun orori jakinarazteaz gain, entitate onuradunak, diru-laguntza jaso duten programak edo jarduerak eta, azkenik, kasuan kasuko diru-laguntzaren zenbatekoa ere publiko egingo dira Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian –Zerbitzu zuzendariaren Ebazpen baten bidez–, jendeak horien berri izan dezan.

Hori horrela izanda,

EBATZI DUT:

1. artikulua.– Eusko Legebiltzarrean ordezkatuta dauden alderdi politikoekiko mendekotasun organikoa duten fundazio zein elkarteentzako 2009ko diru-laguntzetara biltzeko dei egin zuen Kultura sailburuaren 20098ko abuztuaren 7ko Aginduaren babesean onuradun gertatutako entitateak, diru-laguntza jaso duten programak eta baita horietako bakoitzari esleitutako diru-laguntzaren zenbatekoa ere publiko egitea. Datu horiek guztiak eranskinean daude jasota.

2. artikulua.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea, jendeak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko urtarrilaren 27a.

Zerbitzu zuzendaria,
IÑIGO CORTÁZAR IBÁÑEZ.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE CULTURA

1243

RESOLUCIÓN de 27 de enero de 2010, del Director de Servicios del Departamento de Cultura, por la que se hacen públicas tanto las entidades beneficiarias, así como los programas o actividades subvencionados y los importes de las subvenciones concedidas al amparo de la Orden de 7 de agosto de 2009, de la Consejera de Cultura, por la que se convocaron para el año 2009 subvenciones destinadas a fundaciones y asociaciones con dependencia orgánica de partidos políticos con representación en el Parlamento Vasco.

El artículo 11.3 del Decreto 164/2008, de 30 de septiembre, por el que se regula la concesión de subvenciones a fundaciones y asociaciones con dependencia orgánica de partidos políticos con representación en el Parlamento Vasco, establece que, mediante Resolución del Director de Servicios, deberán hacerse públicas a través del Boletín Oficial del País Vasco tanto las entidades beneficiarias así como los programas o actividades subvencionados y los importes de las subvenciones concedidas al amparo de la correspondiente convocatoria anual.

En su virtud,

RESUELVO:

Artículo 1.– Hacer públicas, según consta en el anexo a la presente, tanto las entidades beneficiarias, así como los programas o actividades subvencionados y los importes de las subvenciones concedidas al amparo de la Orden de 7 de agosto de 2009, de la Consejera de Cultura, por la que se convocaron para el año 2009 subvenciones destinadas a fundaciones y asociaciones con dependencia orgánica de partidos políticos con representación en el Parlamento Vasco.

Artículo 2.– Ordenar la publicación de la presente Resolución, para su general conocimiento, en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 27 de enero de 2010.

El Director de Servicios,
IÑIGO CORTÁZAR IBÁÑEZ.

ERANSKINA / *ANEXO*

Esleitutako diru-laguntzen zerrenda / *Relación de subvenciones concedidas*

A. Entitate onuraduna / *Entidad beneficiaria.*

B. Esp. zk. / *N.º expte.*

C. Diruz lagundutako programa / *Programa subvencionado.*

D. Esleitutako diru-laguntza (euro) / *Subvención concedida (euros)*

A	B	C		D
Fundación Ramón Rubial Fundazioa	APF-200910/0001	URTEKO PROGRAMA: 1.– Ramón Rubial ezagutarazteko jarduerak (omenaldiak, liburu-aurkezpenak, erakusketak ea.). 2.– Ramón Rubial Sariak (2008ko sarien emate-ekitaldia eta 2009koen gaineko ebazpena 7 modalitatetan). 3.– Eskola-umeei zuzendutako Ramón Rubial Narratiba-Lehiaketa (VI. edizioko sarien emate-ekitaldia eta VII.ean parte hartzeko deialdia). 4.– Euskadi Hoy hitzaldi-zikloa (1). 5.– Eztabaidatu eta Hausnartzeko Foroa: Los Papeles de la Fundación / Fundazioaren Newsleterrak aldizkariaren 1. zenbakiaren argitalpena (hausnarketa politikoak). 6.– Ramón Rubial formakuntza eskola [alderdi sozialistaren eguneroko jardueraren berezko zikloei lotutako ikastaroak (hauteskunde-zikloarekikoak eta instituzioetako lan-arloetakoekikoak) eta, aldi berean, kargo publikoei zuzendutakoak eta, bestalde, politika-formakuntzaren eta sozialismoaren historiaren gainekoak ere, azkeneko hauek, berriz, modu irekian alderdikideei zuzendutakoak].	*PROGRAMA ANUAL:* *1.– Actividades de reconocimiento de la figura de Ramón Rubial (homenajes, presentaciones de libros, exposiciones, etc.).* *2.– Premios Ramón Rubial (gala de entrega de los premios de la edición año 2008 y fallo de los premios edición año 2009/7 categorías).* *3.– Concurso de narrativa para escolares Ramón Rubial (gala de entrega de los premios de la VI edición y convocatoria de la VII).* *4.– Ciclo de conferencias Euskadi Hoy (1).* *5.– Foro de debate y reflexión: edición del n.º 1 de Los papeles de la Fundación (reflexión política).* *6.– Escuela de formación Ramón Rubial [cursos específicos relacionados con los dos ciclos naturales en los que se desarrolla gran parte de la actividad del PSE-EE (ciclo electoral y ciclo institucional), cursos formativos dirigidos a los cargos públicos del partido y, por último, cursillos relacionados con la formación política y la historia del socialismo, dirigiéndose estos últimos a un público amplio de afiliados/as].*	78.863,40

A	B	C		D
Fundación Sabino Arana Fundazioa	APF-200910/0002	URTEKO PROGRAMA: 1.– Ikerketen Sustapena eta Bekak azpiprograma (4 jarduera). 2.– Hermes: Pentsamenduaren eta Historiaren Gaineko Aldizkaria azpiprograma (4 zk.). 3.– Lurralde Iraskundeak azpiprograma (4 jarduera). 4.– Gogoeta eta Elkarrizketarako Mintzagunea azpiprograma (7 mintegi + 9 hitzaldi[-ziklo]). 5.– Kultur eta Jolas-Jarduerak azpiprograma (Sabino Arana Sarien emate-ekitaldia, Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokan parte-hartzea, ea.). 6.– Beste Erakunde edo Instituzio Batzuek Sustatutako Jardueretan Parte Hartzea azpiprograma (2 jarduera). 7.– Dibulgaziozko Lana eta Urtemuga Historikoak azpiprograma (5 jarduera).	*PROGRAMA ANUAL:* *1.– Subprograma Becas y Promoción de Investigación (4 actividades).* *2.– Subprograma Hermes: Revista de Pensamiento e Historia (4 números).* *3.– Subprograma Institutos Territoriales (4 actividades).* *4.– Subprograma Tribuna de Reflexión y Debate (7 seminarios y 9 conferencias [ciclos]).* *5.– Subprograma Actividades Lúdico-Culturales (gala Premios Sabino Arana, participación en la Feria del Libro y Disco Vasco de Durango, etc.).* *6.– Subprograma Relaciones con otros Organismos e Instituciones (2 actividades).* *7.– Subprograma Labor Divulgativa y Aniversarios Históricos (5 actividades).*	195.111,00
Fundación Progreso Y Democracia Fundazioa	APF-200910/0003	URTEKO PROGRAMA: 1.– Euskadiko hiritar-mugimenduen gaineko dokumental baten ekoizpena, errealizazioa eta edizioa. 2.– 1978ko Konstituzioaren berrikuntzaren gainean eztabaidatzea eta hausnartzea xede duen jardunaldi baten antolaketa. 3.– Fundazioaren webgunea euskaratzea.	*PROGRAMA ANUAL:* *1.– Producción, realización y edición de un documental sobre los movimientos cívicos en el País Vasco.* *2.– Celebración de una jornada de debate y reflexión sobre la reforma de la Constitución de 1978.* *3.– Traducción al euskera de la página web de la fundación.*	6.052,58
Fundación Ezkerraberri Fundazioa	APF-200910/0004	URTEKO PROGRAMA: 1.– Aurkezpen-ekitaldiak (2 prentsaurreko). 2.– Carod Roviraren hitzaldia Donostiako Miramar Jauregian: Del Nacionalismo a la Nación, del Esencialismo Nacionalista a la Constitución Nacional. 3.– Aralarreko kargu publikoei zuzendutako ikastaroa: Ahozko Komunikazioa. 4.– Fundazioak antolatutako mintegi itxia eta herritarrei irekitako hitzaldiak (Bilbon eta Donostian) Memoria Historikoa eta Biktimak gaiaren inguruan.	*PROGRAMA ANUAL:* *1.– Actos de presentación (2 ruedas de prensa).* *2.– Conferencia de Carod Rovira en el Palacio Miramar de San Sebastián: Del Nacionalismo a la Nación, del Esencialismo Nacionalista a la Constitución Nacional.* *3.– Curso dirigido a cargos públicos de la formación política Aralar: Oratoria y Comunicación Oral.* *4.– Seminario de carácter interno organizado por la Fundación y conferencia final dirigida al público en general (Bilbao y San Sebastián) en torno al tema Memoria Histórica y Víctimas.*	5.562,68

A	B	C		D
Fundación Idi Ezkerra Fundazioa	APF-200910/0005	URTEKO PROGRAMA: 1.– Oroimen Historikoa azpiprograma: 1.1.– Oroimenaren bideak II. Hitzaldi-zikloa (4-5). 1.2.– Oroimen ibiltaria proiektua (20 bat jarduera Euskadiko zenbait herritan): 1.2.1.– Bizitza osoa umeak izaten argazki-erakusketa. 1.2.2.– 5 dokumental (Gernikako umeak, Ilobak, Maisu-maistren Errepublika, Llerena: Zortzimilakoen zutabea eta Emakumeak gerrarako prest). 2.– Giza-Eskubideak azpiprograma: 2.1.– Haize kontrako ahotsak Hitzaldi-zikloa (6). 3.– Gizarte Zerbitzuak azpiprograma: 3.1.– Krisi ekonomikoaren eragina gizarte ekintzan Mahai ingurua.	*PROGRAMA ANUAL:* *1.– Subprograma Memoria Histórica:* *1.1.– II Ciclo de conferencias Los caminos de la memoria (4-5).* *1.2.– Proyecto La memoria itinerante (conjunto de alrededor de 20 actividades en diferentes poblaciones de Euskadi):* *1.2.1.– Exposición fotográfica Toda una vida siendo niños.* *1.2.2.– 5 documentales (Los niños de Gernika, Los nietos, La república de los maestros, Llerena: La columna de los ochomil y Mujeres en pie de guerra).* *2.– Subprograma Derechos Humanos:* *2.1.– Ciclo de conferencias Voces contracorriente (6).* *3.– Subprograma Acción Social.* *3.1.– Mesa redonda El efecto de la crisis económica en los servicios sociales.*	13.235,39
Fundación Alkartasuna Fundazioa	APF-200910/0006	URTEKO PROGRAMA: 1.– El coste de la No Europa. Qué sería de nuestro continente sin la Unión Europea liburuaren prestaketa-lanetan parte-hartzea (koordinazio teknikoa, dokumentazioa, idazketa eta zuzenketa). 2.– Del autogobierno a la soberanía. Europa como modelo jardunaldiak (2 egun, 13 parte-hartzaile, 5 ponentzia, 2 eztabaida-mahai eta ondorio-mahai bat).	*PROGRAMA ANUAL:* *1.– Participación en la elaboración del libro El coste de la No Europa. Qué sería de nuestro continente sin la Unión Europea (coordinación técnica, documentación, redacción y corrección).* *2.– Jornadas Del autogobierno a la soberanía. Europa como modelo (2 días, 13 participantes, 5 ponencias, 2 mesas de debate y una mesa de conclusiones).*	2.848,80

A	B	C		D
Fundación Popular De Estudios Vascos Fundazioa	APF-200910/0007	URTEKO PROGRAMA: 1.– Gazteria: 1.1.– Boloniako Prozesuaren gaineko Jardunaldia. 1.2.– Euskal gazteriaren lanbide-orientazioen gaineko jardunaldiak (6). 2.– Balioetan eta Bakearen Kulturan Heziketa: 2.1.– Biktimen eta elkarbizitzaren gaineko jardunaldiak. 2.2.– Biktimen eta bake-prozesuen gaineko jardunaldiak. 3.– Hezkuntza: 3.1.– Mahai ingurua: Hezkuntza, gizartea aldarazteko oinarri sendoa, eta herri-administrazioen ekinbideen mugak. 4.– Terrorismoen Biktimekiko Konpromisoa: 4.1.– Jesús María Pedrosa sariaren emate-ekitaldia. 4.2.– Minaren memoria Proiektua (bi ikerlan 2010ean argitaratu ahal izateko, euren edizioari eta argitalpenari dagozkien egile-eskubideak bereganatzeko kontratuen izenpena: bata, Euskadin eta Nafarroan ETAk hildako zentro-eskuin aldeko politikarien bizitzaren gaineko ikerlana eta bestea, berriz, alderdi geopolitiko berean zentro-eskuin aldeko aukera politikoek jasandako jazarpen terroristari buruzkoa). 5.– Argitalpenak (Supelegor bilduma): 5.1.– Paperezko formatua (Itaunak eta Traizioak eta Hauteskundeetarako Cicerónen gida-liburua). 5.2.– On-line erako formatua (2010ean fundazioaren webgunean 6 lan argitaratu ahal izateko, euren edizioari eta argitalpenari dagozkien egile-eskubideak bereganatzeko kontratuen izenpena). 6.– Ikerketak (2010eko argitalpenak): 6.1.– Hiri Errentamenduen Legea aldatzeko proiektua eta etxebizitzaren egungo merkatuari egokitzapena. 6.2.– Bizkaiko zein Gipuzkoako kostaldearen defentsa. 7.– Betsaide, Egungo Dokumentazioaren Zentroa: 7.1.– Betsaide koadernoak (egun-egungo lau gai jakin txertatzea fundazioaren webgunean).	*PROGRAMA ANUAL:* *1.– Juventud:* *1.1.– Jornada sobre el Proceso de Bolonia.* *1.2.– Jornadas sobre las orientaciones profesionales de la juventud vasca (6).* *2.– Educación en Valores y Cultura de Paz:* *2.1.– Jornadas sobre víctimas y convivencia.* *2.2.– Jornadas sobre víctimas y procesos de paz.* *3.– Educación:* *3.1.– Mesa redonda: La educación como motor de cambio en la sociedad y los límites de la actuación de las administraciones públicas.* *4.– Compromiso con las Víctimas del Terrorismo:* *4.1.– Entrega del premio Jesús María Pedrosa.* *4.2.– Proyecto La memoria del dolor (suscripción de dos contratos para la cesión de derechos de autor correspondientes a la edición y publicación en el año 2010 de dos trabajos de investigación: uno, relativo a la vida de las víctimas políticas de centro-derecha asesinadas por ETA en el País Vasco y Navarra y, otro, correspondiente a la persecución terrorista a las opciones de centro-derecha en el País Vasco y Navarra).* *5.– Publicaciones (colección Supelegor):* *5.1.– Formato papel (Pactos y Traiciones y El manual electoral de Cicerón).* *5.2.– Formato on-line (adquisición de derechos de autor sobre 6 obras para su edición en el año 2010).* *6.– Investigaciones (publicación en 2010).* *6.1.– Proyecto de reforma de la Ley de Arrendamientos Urbanos y su adaptación al mercado de la vivienda actual.* *6.2.– Defensa de la costa vizcaína y guipuzcoana.* *7.– Centro de Documentación Contemporánea Betsaide:* *7.1.– Cuadernos Betsaide (inclusión en la página web de 4 temas de actualidad).*	44.921,01